

Historiaurreko erlijiotasunak

Según aprendimos y nos lo recuerda la Academia de la Lengua, la Prehistoria se define como el “período de la vida de la humanidad anterior a todo documento escrito y que solo se conoce por determinados vestigios, como las construcciones, los instrumentos, los huesos humanos o de animales, etc.”. Viniendo a nuestro objeto, esa definición nos muestra ya las dificultades mayores que presenta el estudio de la religiosidad prehistórica, al carecer de fuentes escritas, y obligados a un difícil análisis de los vestigios materiales disponibles, desde el Paleolítico más remoto hasta la llegada de la escritura. Digamos que un pasado de unos 150.000 años.

Gizakiaren erlijiotasunaren lehen sorrera eta garapena denboraren urruntasun sakonean galtzen zaizkigu, eta Historiaurreko idazkuntzarik ezaz oztopo handia da giza erlijiotasunaren (antropologoek *Homo religiosus* bezala aipatu dutenaren) erlijiozko lehen pentsamendu eta sentierak atzemateko. Betiere behartuta gaude hondakin materialen bidez lan egitera, aurkitutako sorkari, gauza eta tresnak begiratu eta ulertzera, eta beharbada beren atzean duten “asmoak” antzematera. Zientzialarien lan nekoso eta arriskutsua da hori.

Egin kontu, guk Bibliarekin lotu ohi dugun erlijiotasuna oso berandukoa dela, orain hiru milaren bat urtetik honakoa, gaur aipatu nahi ditudanak hamar milaka urte lehenagokoak diren bitartean.

Gizakiaren bila

Paleontologiatik jakin ahal izan dugunez (hau da, izaki biziez eta lehen gizakiez ari den zientzia horretatik, esan nahi dut), gizakiak bere aurreko eboluzioaren ez ditu milaka urte bakarrik, milioika urtetik hona Lur honetan bizi baita gizakitarabidean zetorren hura.

Hori horrela, pentsamenduaren eta sentimenduen jabe librea noiztik eta nola izan den ez dakigunez, are gutxiago dakigu erlijiotasunaren lehen printza noiz piztu zen haren baitan (artean, ez zegoen Biblia eta beste Erljioetako

Liburu Sakraturik). Gizakia urratuz zetorren aldakuntza-ibilera osoa ziurtasun argiagoz ezagutu beharko genuke lehenik, haren erlijiotasunaz erantzun edo hipotesi helduagoen jabe izateko.

1970eko hamarkadatik hona egindako aurkikunde paleontologikoak handiak izan dira, eta guztiz aldatu-osatu dituzte lehenik eskuratu zeuden ezagutzak. Egia esan, ustekabeko aurkikundeak ezagutzean, adituek hainbat bider aintzakotzat hartu behar izan dituzte datu kronologiko berriak ez ezik ezagutza zaharren eta berrien arteko ustezko (des)adostasunak.

Hemen aipa ditzadan, hominizazio-kateko azken lorpenak, eta bakoitzari legokiokeen kronologia: orain 6/7 milio urte, hominidoek eboluzioaren bilakaeran aparteko bidea hartu zuten, eta beren baitan ondoko bereizketak hasi zituzten, *Homo* generora iritsi arte, eta genero honen barruan hainbat adar osatuz; beharbada hauek dira guretzat hemen interesgarrienak: *Homo habilis*, *Homo ergaster* eta *Homo sapiens*.

Homo ergaster horrek bi berritasun handi ekarri zituen: bere adimenarekin dohain harri garri berria zuela, pentsatu egiten zuen eta bere egintzetan ohartuta jarduten. Hortaz, erlijiotasuna ere posible izan zitekeen.

Ondoko *Homo sapiens* hark (neadertala deituko dugunak) hurrengo urratsa dakar. 127.000 eta 40.000 arteko urteetan bizi izan zen, oso europarra zen, baina Ekialde Hurbilera eta Erta-



siaraino heldu ziren gizakiok. Hain hedapen indartsua izanik ere, bizialdi mugatua izan zuten neandertalek, eta 35.000/30.000 milakada inguruan edo desagertu ziren, oraindik hain argi ez dauden arrazoiengatik. Edozein kasutan, beren erlijiotasunaren daturik utzi zigutela dirudi (lehenengo aldiz, orduantxe), beren hildakoei balio sinbolikoz inguratuta lur-ematean.

Gizaki neandertala desagertzeaz zenean, *Homo sapiens sapiens* edo gizaki *cro-magnon*-darrak populatu zuen mundu osoa, eta haien ondokoak gara gu. Adimen-indar berria erakutsi zuen honek, eta badirudi, adimen-argitze horrekin batera, giza erlijiotasunak azalpen-modu aberatsagoak aurkitu zituela, sinbologia eta arte-lan berrien bitartez emanak.

Antropologiaren eta historiaren artean

Lehen erlijiotasunaren bilaketa honetan, Historiaurrean Aro ezberdinak aipatu beharko genituzke, garaian garaiko kultura ezberdinekin zerikusi eta loturarik dutenak. Oro har munduan, eta zehazkiago Europako Mendebalde honetan, Historiaurreko kultur aldiek beste zenbait eskualdetan baino ibilera berankorragoa izan zuten.

Egia esan, Historiaurreko kultura handiak Egipton, Ekialde Hurbilean, eta geroxeago Indian eta Txinan aurki ditzakegu; kasu haietan, gainera, Historiaurrearen mugei gaina hartu eta idazkuntza ere asmatuta.

Gaur gaurkoz badirudi ez dugula ezer esatekorik 150.000ren bat urtetik haragoko erlijiotasunaz, lehen erlijio-keinuak Behe-Paleolitoko gizaki neandertalari ikusi izan baitzaizkio. Ondoren, Goi-Paleolitoko zer begira asko eman zuen, 30.000/10.000etako aztarnak eta berezikiago artea tarteko direla.

Azkenik, K.a. 8.000 urtetik hasita, Neolitoa da, bere kultur aro ezberdinekin, iraultza erabakigarria ekarri zuena, giza banakoaren erlijiotasunean ez ezik, erlijioaren antolakuntza sozialean ere, jainko-jainkosen mitologiak ere antolatuta. Arkeologiak lagundu du hori ezagutzen, eta geroagoko kultura idatziek batez ere.

XX. mendeko ikerlanek, baita Euskal Herrian ere, Arkeologiaz gain Historia erlijiosorako beste informazio-iturri bat ere erabili nahi izan dute, Antropologia, herri "primitibo" deitzen ohitura eta kontakizun zaharrak jaso eta aztertzean.

Euskal Herria harrobi emankorra gertatu da zientzia horretatik egin ahal izan diren ekarpenetan. Egia da, Antropologiako datuetatik Historiarrera salto egiteak bere arriskuak dituela, baina iker-metodologiak finduta laguntza ona izan daiteke berori ere. Horretarako, historialariek jakin-minez baina tentuz jaso dituzte herri "zaharren" bizimoduek erakutsi dituzten osagai erlijiosoak.

Gainera, Paleontologia berea egiten ari zen bitartean, Antropologiak eta Etnografiak arretaz ikertu dute mitoen eremua, iraganeko erlijiotasunaren historiaz ere argibideak biltzeko. Hala nola, munduaren sortzea eta gizakiarena argitan jartzeko.

Gaur egun, Erlijioen Zientzia ezberdinek baliabide berriak eskuratu ahal izan dituzte, denboraren tunel luzean Historiaurreko erlijiotasunera argitasun eta hipotesi helduagoen bidez iritsi eta gizakiaren "jatorrizko" funts erlijiosoan zentzeman ahal izateko.

Aldizkariaren datozen hilabeteetako zenbaitetan joango gara honelako arazoei buruz gure gogoeta historiko xumea egiten.

Joseba Intxausti